

Kismi jaio dok!

Aldi baten gure mendietan jentilak ei ziran;
basajaun antzeko gizatoak,*gizon handi handiak.

Behinola,*

jentilok ikatza egosten*ziharduela

—Hi! Zer ^{da}dok ha? —esan eutsan euretariko batek besteari.

—Zein?

—Eguzki aldetik datorren hodei*antzeko ha.

—Ene! Benetan... Hodeia, ete ^{da}dok gero?

Bat batean alkartu ziran danak eta gora begira egozan
batak besteari itaunka hodeia ala lainoa ala zer izan leitekean.
Inork ez eutsan antzik emoten.

—Itaundu ^{leike}daiogun gure jentil zaharrari —esan eban batek—
hark jakin lleikek-eta.

Joan ziran ba, jentil zaharragana.

Han egoan, etzunda, geldi-geldi, jentil zahar hori...

Zaharraren zaharrez konkortuta,

betazalak*ere itxita ezer ikusten ez ebal.

—Sortaldetik*^{dogu}honantz hodei berezi*^{zuk}bat datorrela ikusten joagu
eta ez jakigu^{da} zer dan. Hik ba al dakik?

—Zabalduegizuek begiok hodei hori ikusteko —esan eutsen.

* gizatoa = hombrón, gigante
* behinola = en cierta ocasión
* ikatza egosi = ikatza egin

* hodei = hedoi, nube
* betazala = párpado
* sortalde = este, oriente

* berezi = especial, singular
* esku-agea = palanca
* behingoan = en un instante

* jaso = altzau
* amildu = despeñar
* Aroa = época, edad, era

* iragarri = anunciar
* oturuntza = banquete, festín

* ok egin = hartarse, ahitarse
* gomuta = recuerdo, memoria

Egurrezko esku-haga*handi batzuk hartu
eta betazalok behingoan*jaso*eutsoezan.
Jentil zaharrak hodei berezi hori ikusi ebanean
—KISMI JAIO ^{da}DOK! —esan eban, oihu handiz.
—Kismi!? —danak.

—Bai, JESUKRISTO jaio ^{da}dok!

Gureak egin ^{da}jok —esan eban gero—

Jaurti naizue, amildu*naizue, haitzetik behera!

Eta haitzetik behera jaurti eben... gizajoa!

Eta Jentil-Aroari*azken ordua heldu jakola-ta

eurek ere, banan banan, euren burua bota eben goitik behera.

Eta hil egin ziran.

Danak? Ez, ba! Bat gelditu zan: OLENTZERO izenekoa!

Olentzero-k menditik behera bere burua bota beharrean

mendian behera egin eban, arineketan,

BARRI ON hori herrikoei iragarten.*

—Kismi jaio ^{da}dok! JESUKRISTO jaio ^{da}dok! —esan eutsen danei.

Olentzero-ren BARRI hori poz handiz entzun eben herritarrek,

eta jaialdi handi-eder bat egin eben oturuntza*ta guzti.

Olentzero-k jan ahala jan eban eta edan-ahala edan, ok egin*arte.

Horrelan hondatu ei ziran jentilak.

Eta orain guk Gabonetan, Jesukristo-ren etorrerea ospatuz

Olentzero-ren gomuta*ere gogora ekarten dogu.

